



OSOKO BILKURAREN AKTA

SAIOAREN DATUAK	
Kide anitzeko organoa:	Osoko Bilkura
Deialdi-mota:	Ohikoa
Data:	2023ko urtarrilaren 26a
Iraupena:	19:03tik 19:24ra
Lekua:	Osoko bilkuren aretoa
Udalburutza:	Unai Gutierrez Urkiza
Idazkaritza:	Oiartzta Urquijo Alaña
SAIORA BERTARATZEA	
ALKATE-UDALBURUA	BERTARATU DA
UNAI GUTIERREZ URKIZA	BAI
ZINEGOTZIAK	BERTARATU DIRA
INMA ELORZA BERGARA	BAI
AGUSTIN OTSOA ERIBEKO LANDA	BAI
DORLETA MARTINEZ DE ALBENIZ PEREZ	BAI
ALAITZ TRESSERRAS ANGULO	BAI
NEREA IDIGORAS LASAGA	BAI
ITZIAR IRCIO VEA-MURGUIA	BAI
CONCHI LOPEZ LOPEZ	BAI
ANDRES LAFUENTE OTXOA	BAI
JUAN CARLOS ALONSO MORAZA	BAI
LUIS MARIA SAUTU APELLANIZ	BAI



Murgian, 2023ko urtarrilaren 26an, 19:03ak direnean, aurretik legearen arabera deialdia eginda, Ohiko Bilkura egin da Udaletxeko Bilkura Aretoan. Behean zerrendatzen diren zinegotzi jaun-andreak bildu dira, Unai Gutierrez Urkiza alkate jaunak zuzendu du bilkura, eta Oiertza Urquijo Alaña andreak Udalbatzako idazkari lanak egin ditu.

Idazkariak kide anitzeko organoa behar bezala eratu dela egiaztatu ondoren, udalburuak bilkurari hasiera eman, eta gai-zerrendan jasotako gaiak eztabaidatu dira.

1.- AKTEN ONARPENA.

Kontrol-jarduera	Alde	Aho batez
------------------	------	-----------

Aurreko bilkuretako aktak ikusita, horiek onartzea erabaki du Udalbatzak aho batez.

2.- ALKATETZAREN DEKRETUAK.

Alkatetzak emandako ebazpenak ikusirik, hau da, 2022ko abenduaren 19ko 397-2022 Dekretutik 2023ko urtarrilaren 12ko 04-2023 zenbakidunera bitartekoak, Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

3.- POSTA OFIZIALA.

Udaleko erregistro orokorrean sartu eta atera den dokumentazioa eta ordainketa-aginduak ikusita, Udalbatza jakinaren gainean geratu da.



4.- UDALAREN GIZARTE ZERBITZUEN PRESTAZIOA
BEHIN-BEHINEAN MANTENTZEKO SEIGARREN LUZAPENA
ONARTZEKO ERABAKIA.

Ebazpen-zatia	Alde	Aho batez
---------------	------	-----------

ALKATE-UDALBURUAK hitza hartu, eta 2023ko urtarrilaren 25eko Osoko Bilkurako Gaietarako Informazio Batzordean azaldutakoa berretsi du.

KONTUAN HARTUTA, Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen (aurrerantzean, GZL) 42. artikulua aurreikusten duen bezala, Udalaren eskumena dela honako eginkizun hauek betetzea:

(...)

3) 29. artikuluan zehazturik datozen oinarrizko gizarte-zerbitzuak sortzea, antolatzea eta kudeatzea.

4) Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Katalogoko lehen mailako arretako gizarte-zerbitzuak eskaintzea, telelaguntza-zerbitzua izan ezik. Lehen arretako gizarte-zerbitzu horiek 22. artikuluko 1. paragrafoan daude araturik.

GZLren 2. artikulua, halaber, gizarte-zerbitzuetarako eskubide subjektiboa ezartzen du, zeina 2016ko abenduaren 26an hobetu baitzen.

Arau-eskakizun horien ondorioz, ZUIAko Udalaren Osoko Bilkurak honako hau egiaztatu du:

a) GZLren 42. artikulua eta legean jasotako beste arau-erreferentzia batzuek bereizi egiten dituzte udal-eskumena eta zerbitzua benetan ematea.



- b) GZLren helburu argi eta erabakigarria da udal-eskumeneko gizarte-zerbitzuak batera eman ahal izatea (GZLren 28.2 eta 29.4 artikulua).
- c) Helburu hori bereziki nabarmena da Arabako Lurralde Historikoan, udalerrri batek ere (Gasteizek izan ezik) ez baitu gainditzen 20.000 biztanleko atalasea, ZUIAk ere ez bezala.
- d) Prestazio partekatu hori GZLren 36.5 artikuluan ere ikusten da, Gizarte Zerbitzuen Mapak, aplikatzeko, foru- eta toki-administrazioek zehazten dituzten mugapen geografikoak hartuko dituela zehazten duenean. Arabako Lurralde Historikoko Gizarte Zerbitzuen Mapa hori 2016ko uztailean onartu zen.
- e) Orain arte, Arabako Foru Aldundiak, bere kabuz eta Gobernu Kontseiluaren abenduaren 26ko 904/2016 erabakiaren bidez (organo beraren abenduaren 21eko 765/2018 eta maiatzaren 26ko 222/2020 erabakien bidez luzatua), udal-zerbitzuen zati bat betetzen du, eta ezarritako aurreikuspenetatik abiatuta zerbitzu horiek ematea udalaren eskumena da.
- f) Aurten, 2023. urtean, 26 urte beteko dira Toki Erakundeak Finantzatzeko Funtsa arautzen duen 17/1997 Foru Araua onartu zenetik, eta, udalek historikoki aldarrikatu duten arren, Aldundiak ez du finantzaketa eguneratzen udalek zenbait lege sektorial indarrean jarriz eskuratzen dituzten eskumenen arabera, gaur egun Euskadiko Gizarte Zerbitzuei buruzko Legearekin gertatzen den bezala.
- g) GZLk berariaz aitortzen du administrazioen arteko lankidetzaren eta koordinazioaren betebeharra, diseinatzen den gizarte-zerbitzuen sistema integratu bati datxekiona.
- h) Halaber, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 31. 2 a) artikulua arabera, diputazioen helburuetako bat da "udal-eskumeneko zerbitzuak probintzia-lurralde osoan osorik eta egoki emango direla bermatzea".
- i) AFaren utzikeriak eta finantzaketarik ezak sortutako defentsa-gabeziaren aurrean, ZUIAko Udalak hainbat urtetan ados azaldu da Arabako Foru Aldundiaren Gobernu



Kontseiluaren abenduaren 26ko 904/2016 erabakiarekin. Erabaki horren bidez, gizarte-zerbitzuak 2016ko abenduaren 26tik aurrera ematen jarraitzea onartu zen, Aldundiak eta 20.000 biztanletik beherako Arabako Lurralde Historikoko udalerriek behin-behinean kudeatzen zituzten baldintzetan, 24 hilabeteko aldi iragankor batean. Epe horren barruan, mapa egiteko eraturako Erakunde arteko Mahaiak gizarte-zerbitzu guztiak eraginkortasunez emateko behar diren baliabide tekniko, ekonomiko eta juridikoak proposatuko lituzke, bakoitzari dagokion eskumen-esparruan, zeina pixkanaka ezarriko bailitzateke adierazitako aldian. Urte horietan guztietan, halaber, ados azaldu da organo beraren abenduaren 21eko 765/2018 Erabakiarekin, zeinak 2020ko ekainaren 26ra arte luzatu baitzuen abenduaren 26ko 904/2016 Erabakia, eta organo beraren maiatzaren 26ko 222/2020 Erabakiarekin, zeinak aipatu akordioa 2020ko abenduaren 31ra arte luzatu baitzuen.

- j) Prozesu hori ez da oraindik amaitu, etxez etxeko laguntza-zerbitzuari dagokionean izan ezik.

IKUSIRIK Arabako Foru Aldundiaren abenduaren 28ko 883/2022 Erabakia, lurralde historikoko udalei abenduaren 26ko 904/2016 Erabakia 2023ko abenduaren 31ra arte luzatzeko proposamena helaraztea onartzen duena. Erabaki horren bidez, gizarte-zerbitzuen behin-behineko mantentzea onartu zen, Arabako Foru Aldundiak eta 20.000 biztanletik beherako udalerriek kudeatu dituzten baldintzetan, bere garaian adostutako baldintza berberetan.

Kontuan hartuta beharrezkotzat jotzen dela lankidetzaren esparru batean lan egiten jarraitzea, Gizarte Zerbitzuen Legeari, Zorroari buruzko Dekretuari eta Plan Estrategikoan xedatutako moduan udal-espumeneko zerbitzuak emateko, eta hori guztia egungo Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemarekin bat datorren ikuspegi tekniko, juridiko eta nahikotasun finantzariorik.

Eta, datu arauemaitetik abiatuta, hau da, aipaturako Erabakiaren bigarren puntuak ezartzen duela Erabakiaren eraginkortasuna udalerrin



bakoitzari dagokionez baldintzatuta geratzen dela, eta, ondorioz, Arabako Foru Aldundiari dagokion udal-organo eskudunaren onespena jakinarazi beharko zaiola.

Udalbatzako gainerako kideei hitza eman ondoren, ITZIAR IRCIO VEA-MURGIA zinegotziak adierazi du ZUIA BAI taldea ados dagoela akordioa formalizatzearekin, baina, hala ere, ez dagoela ados idatzitakoari egindako eransketa laburrarekin, hau da: "*Behartuta gaude adostasuna azaltzera...*".

Proposamena AZTERTUTA, eta **Udalbatzaren** Osoko Bilkura bat **aho batez** bat etorrita, hots, Udalbatzako kide guztien aldeko botoarekin: EH BILDU (6), ZUIA BAI (4) eta ALDERDI POPULARRA (1). Horrenbestez, honako hau **ERABAKI DU**:

LEHENENGOA.- Behartuta gaude, Zuiako Udal gisa, ados azaltzera Arabako Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluaren abenduaren 28ko 883/2022 Erabakiarekin. Erabaki horren bidez, 2023ko abenduaren 31ra arte luzatzea onartu zen abenduaren 26ko 904/2016 Erabakia, gizarte-zerbitzuen behin-behineko mantentzea onartzen zuena, Aldundiak eta 20.000 biztanletik beherako Arabako Lurralde Historikoko udalerriek kudeatu dituzten baldintzetan, bere garaian adostutako baldintza berberetan.

BIGARRENA. - Seigarren urtez jarraian, Udal honek ez du inolako ondorioz edo erantzukizunik izango, Diputatuen Kontseiluak aldi iragankor horretan bere kabuz hartutako erabakiaren ondorioz.

HIRUGARRENA. - Alkatetzari ahalmena ematea erabaki honetan xedatzen den guztia garatu eta kudeatzeko.

LAUGARRENA. - Erabaki hau Arabako Foru Aldundiari jakinaraztea, aipatutako testuaren hirugarren puntuan aurreikusitako ondorioetarako.

5.- 2023 AURREKONTU PROPOSAMENA, AURREKONTU PLANTILLA ETA LANPOSTUEN ZERRENDA.



Ebazpen-zatia	Alde	Aho batez
---------------	------	-----------

ALKATE-UDALBURUAK hitza hartu, eta 2023ko urtarrilaren 25eko Osoko Bilkurako Gaietarako Informazio Batzordean azaldutakoa berretsi du.

ITZIAR IRCIO VEA-MURGIA zinegotziak idazki bat irakurri eta aktan jaso dadila eskatu du. Hauxe dio idazki horrek: "*Gobernu-taldeak 2023rako aurrekontuen proiektu anodinoa, kontinuista eta edukirik gabea aurkeztu digu, eta agintaldi honetan eta aurrekoetan izan den joerak kolore berean darrai.*"

Udal-gobernu honen immobilismoa kezkarria da; izan ere, proiektu txikiak ere ezin izan dira aurrera atera urteak igaro ondoren. Adibidez, La Encontradako bide publikoaren konpontze-lanak, Ametzaga-Sarria bidea berreskuratzea, San Martin kaleko lurpeko edukiontzia martxan jartzea, auto elektrikoen kargagailuak, bizikletak garbitzeko eta mantentzeko estazio bat instalatzea, Bea-Murgia plazako kirol anitzeko pista berritzea, Sarriarako arrapala, etab. Proiektu horietako asko ZUIA BAIk aurkeztu zituen aurreko aurrekontuetan.

ZUIA BAIk aurten ez du proposamenik egin aurrekontu honetarako, uste baitugu ez direla egingo, legealdia maiatzean amaitzen baita eta ez baitu denborarik izango.

Erdizka daudenetako batzuk amaituta ikusi ahal izatea espero dugu.

Eta Zuiarako beharrezkoak eta handiagoak diren beste proiektu batzuei buruz ari bagara, are gutxiago ikusi dugu EHBilduk Udalean egin dituen hiru legegintzaldietan.

Etxebizitza-arloan, luzamendutan gabiltza, eta orain hemen, gero han, orain Aldundiak, gero Eusko Jaurlaritzak, eta azkenean, ez da herritarren eskura etxebizitza berririk jarri.

Kultur Etxearekin gauza bera; lehenengo Domingo Sautu kaleko 22. zenbakian, eta gero Villa Jesusan. Beraz, Aldundiaren dirulaguntzari uko egin genion eta oraingoan ere ez dugu ezer ikusi.



Kiroldegia, lizitatu egin dugu, hutsik geratu da, berriro atera dugu. Baina hor ere ez dago ezer.

HAPOaren gaia, urtero azpimarratzen du bultzada bat eman behar zaiola aplikatzeko, baina ez dugu ikusten aurreratzen duenik.

Ura, hain beharrezkoa Zuian, gaiari beti iheska, Eusko Jaurlaritza, Aldundia, URA... nahi duzuen, baina ez zarete gai izan hain desiratua eta beharrezkoa den baltsa egitea lortzeko.

Bestalde, eskerrak eman nahi ditugu 22. eta 23. urteetako administrazio-batzarretako elektrizitate-gastua handitzeko partidak kontuan hartu eta jaso direlako, eta administrazio-batzarretako zaindariaren jaiak ospatzeko gastuetarako dirulaguntzaren partida handitu delako, bai eta Jai Alai pilotalekua erabili delako ere.

Amaitzeko, uste dugu legegintzaldi honetan gobernu taldeak gehiengo osoarekin gobernatu duela, dirua biltzeko gogo handia izan duela, zergak eta tasak igo direla, eta herritarrek ez dutela hori islatu eskaintzen zaizkien zerbitzuetan.

Horregatik guztiarengatik, 2023ko aurrekontu-proiektuan abstenitu egingo gara."

LUIS MARIA SAUTU APELLANIZ zinegotziak hitza hartu, eta aurrekontu-proiektuan sartutako bi partidaren inguruan galdetu du: alde batetik, establezimendu publikoetarako dirulaguntza, eta, bestetik, mendi publikoen mugaketa. ALKATE-UDALBURUAK horri buruzko azalpenak eman ditu.

LUIS MARIA SAUTU APELLANIZ zinegotzia pozik azaldu da kontzejuei argiteria publikoaren defizita ordaintzen laguntzeko 43.000 euroko partida sartu delako.

Zinegotziak adierazi du aurrekontuen aurkako botoa emango duela, azken urteetan egin duen bezala, ez baitago ados zenbait partidarekin: Vergesen senidetzea, SARE... Zinegotziak esan du ez duela proposamenik egin komeni delako oraindik egiteke dauden proiektuei, eta tartean, kirol-instalazioei, lehentasuna ematea eta horiek aurrera ateratzea.

ALKATE-UDALBURUAK hitza hartu, eta ZUIA BAI taldearen idazkiari erantzun dio, eta adierazi du ez dela harritu azken hiru



urteetako "joera orokorra" delako. ALKATE-UDALBURUAK esan du idazkia demagogo dela eta gezurrak jasotzen dituela, aipatutako proiektu asko esleituta eta ia amaituta daudelako. ALKATE-UDALBURUAK adierazi du ez duela ulertzen zergatik esaten duen ZUIA BAIren Taldeak aurrekontuak maitatzean amaitzen direla, aurrekontuak 2023ko ekitaldi osorako aurreikusita daudenean, eta, beraz, proiektuak gauzatzea ere bai. ALKATE-UDALBURUAK adierazi duenez, aurrekontua "kontinuista" edo "pobrea" dela ulertzen badute, ekarpenak egin zitzaketela aberasgarriagoa izan dadin. Horrek, azaldu du ALKATEAK, berarekiko interesa eta borondatea erakusten du. Amaitzeko, ALKATE-UDALBURUAK adierazi du ez duela jarraitu nahi ulertu nahi ez den zerbait justifikatzen.

KONTUAN HARTUTA 2023ko ekitaldirako aurrekontua onartzeko espedientea Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauan eta Diputatuen Kontseiluaren 2015eko azaroaren 3ko 56/2015 Foru Dekretuan, Arabako Lurralde Historikoko toki-erakundeen kontabilitateko arau-esparrua onartzen duenean, jasotako xedapenen arabera izapidetu behar dela.

KONTUAN HARTUTA aurrekontua, gainera, aurrekontu-egonkortasunaren printzipioari egokitu behar zaiola, hau da, oreka-egoerari edo egiturazko superabitari, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoaren 2.1 eta 3.2 artikuluetan eta Arabako Toki Erakundeen aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko abenduaren 13ko 38/2013 Foru Arauan aurreikusitakoaren arabera.

IKUSITA ETA EZAGUTUTA udal kontu-hartzaileak 2023ko urtarrilaren 23an egindako txostenen edukia.

IKUSITA 2023ko urtarrilaren 23ko Aurrekontu Egonkortasunaren eta Finantza Iraunkortasunaren kalkulari buruzko Esku-hartze Txostena, zeinaren arabera egoera aurrekontu-orekako baita eta ez baitago erakunde honen zor bizirik.



AZTERTUTA 023ko ekitaldi ekonomikorako Aurrekontu Orokorraren proposamena, **Udalbatza** ados azaldu da **gehiengo osoz**, EH BILDUREN (6) aldeko botoarekin, ZUIA BAiren abstentzioarekin (4) eta ALDERDI POPULARRAREN aurkako botoarekin (1), eta, beraz, Udalbatzako kideen legezko kopuruaren gehiengo osoa ordezkatzeko duen quorumarekin, honakoa **ERABAKI DU**:

LEHENENGOA. – Udalbatzak 2023ko ekitaldirako duen Aurrekontu Orokorra hasiera batez onartzea. Aurrekontu horren guztizko zenbatekoa 3.944.234,55 eurokoa da (hiru milioi bederatzehun eta berrogeita lau mila berrehun eta hogeita hamalau euro eta berrogeita hamabost zentimo), bai sarreraren bai gastuen egoera-orrian. Hona hemen horien laburpena, kapituluka:

GASTUEN EGOERA-ORRIA

KAPITULUA	ZENBATEKOA
1.- LANGILE GASTUAK	662.700,00
2.- GASTUAK ONDASUN ARRUNTETAN ETA ZERBITZUETAN	1.898.193,00
4.- TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	682.111,55
6.- EGIAZKO INBERTSIOAK	418.730,00
7.- KAPITALAREN TRANSFERENTZIAK	282.500,00
8.- AKTIBO FINANTZARIOAK	0,00
Aurrekontua, guztira	3.944.234,55

SARREREN EGOERA-ORRIA

KAPITULUA	ZENBATEKOA
1.- ZERGA ZUZENAK	1.083.000,00
2.- ZEHARKAKO ZERGAK	80.000,00



3.- TASAK ETA BESTELAKO SARRERAK	413.311,55
4.- TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	1.564.519,62
5.- ONDARE SARRERAK	445.403,38
6.- EGIAZKO INBERTSIOAK BESTERENTZEA	330.000,00
7.- KAPITALAREN TRANSFERENTZIAK	18.000,00
8.- AKTIBO FINANTZARIOAK	10.000,00
Aurrekontua, guztira	3.944.234,55

BIGARRENA. - Aurrekontuaren espedientearen ageri den Aurrekontua Betearazteko Udal Araua hasiera batez onartzea.

HIRUGARRENA. - Erakunde honetako langileen plantilla hasiera batez onartzea, aipatutako espedientearen agertzen den bezala.

LAUGARRENA. - Espedientea jendaurrean jartzea hamabost egunez, Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean eta udaletxeko iragarki-oholean iragarkiak jarrita, interesdunek erreklamazioak aurkez ditzaten.

BOSGARRENA. - Erreklamaziorik ez badago, erabaki hau behin betikotzat jotzea.

SEIGARRENA. - Erreklamaziorik badago, hilabeteko epearen buruan beste erabaki bat hartzea.

ZAZPIGARRENA. - Behin betiko erabakia arauzko moduan eta epean argitaratzea.

ZORTZIGARRENA. - Behin betiko erabakiarekin batera, erakunde honen lanpostuen zerrenda argitaratzea, Euskal Enplegu



Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 45.3 artikuluekin bat etorriz.

BEDERATZIGARRENA. - Aldi berean, espedientearen kopia bat Arabako Foru Aldundiari bidaltzea.

6. TXOSTENAK.

ALKATE-UDALBURUAK hitza hartu, eta adierazi du 2023ko urtarrilaren 25eko Osoko Bilkurako Gaien Informazio Batzordean aipatutako gaiak baino ez daudela.

7.- GALDERAK ETA ESKAERAK.

ALKATE-UDALBURUAK galderak eta eskaerak egiteko txanda ireki du, eta ez da galderarik edo gogoetarik egin.

Eta aztergai gehiagorik egon ez denez, ALKATE-UDALBURU jaunak bilkura amaitutzat eman du 19:24an, eta nik, idazkaria naizen honek, hori guztia egiaztatu dut.

Idazkaria,